



I. DEFINIZIOAK

- 1 **Nekazaritza:** laborantza, abeltzaintza eta basogintza biltzen ditu.
- 2 **Nekazaritza jarduera:** laborantzako, abeltzaintzako edota basogintzako produktuak lortzeko egin beharreko lanak. Eraldaketa, ontziratzea eta merkaturatzea ere nekazaritza-jardueratzat joko dira, baldin eta ustiategian bertan egiten badira; bai eta ustiategiaren mantentze-lanak ere.
- 3 **Nekazaritza-jarduera osagarri:** ustiategiko titularrak elkarteen, kooperatiben edo profesional-elkarteen ordezkari-organismoetan parte hartzea, betiere elkarte horiek lotuta badaude nekazaritza-sektoreari, ingurumen-arloko eta nekazaritza-garapeneko ondasunak eta zerbitzuak lortzeari, jarduera turistikoari, zinegetikoari, artisau-jarduerari, eta bere ustiategian egindako bestelako dibertsifikazio-jarduerari (adibidez, energia berriztagarria ekoiztea, agroturismoa...).
- 4 **Nekazaritza-ustiategi:** titularrak (pertsona fisikoa zein juridikoa) nekazaritza-jardueraren baitan enpresa moduan antolatutako ondasun eta eskubideak, baldin eta unitate tekniko-ekonomikoa osatzen badute, eta helburua, batik bat, merkaturatzea baldin bada. Zenbait kasutan, gerta liteke laborantzarako azalerak gutxieneko neurri jakina (lurra lantzeko unitate minimoa) betetzeko exijitzea.
- 5 **Familiako nekazaritza-ustiategi:** mota honetako nekazaritza-ustiategian, ondasunak eta eskubideak familia-unitateko kide batek edo batzuek jarritakoak dira –jabetzan, errentan edo edozein erabiltze- edo gozamen-titulutan–; horrez gain, familiakideak dira ekoizpen-erabakiak hartzen eta administratzen dituztenak eta ustiategian lan egiten dutenak, eta soldatapeko langileak ez dira ustiategian lanean diharduten familia-unitateko kideak baino gehiago.
- 6 **Sozietate bidezko nekazaritza-ustiategi:** horrelakoa da ustiategia, baldin eta titularra zenbait bazkide biltzen dituen pertsona juridikoa baldin bada. Titulartasuna estatutuek edo sozietate-mota erregulatzen duen araudiak arautuko dute.
- 7 **Nekazaritza ustiategiko elementuak:**
 - a) Ustiategiari lotutako lurak, edukitze erregimena nolanhikoa dela ere, gaur egun landu-gabekoak barne betiere bere nekazal funtsa mantentzen badute eta ehiza barruti pribatu bezala ustiatutakoak ere.
 - b) Nekazal lurretako eraikuntza edo instalazioak, nahiz eta zuzenean ustiategiari atxekituta ez egon.
 - c) Ustiategiari lotutako erabilera eta gozamen eskubideak.
 - d) Ustiategiari lotutako nekazal tresna, lanabes eta makinaria, partzialki edo bere osotasunean.
 - e) Animaliak, eta titularra jabe den eta ustiategiari lotuta dauden gainontzeko ondasun eta eskubideak.
- 8 **Ustiategiaren titularra:** nekazaritza-jardueran eta zenbait kasutan beste jarduera osagarri batean ere aritzen den pertsona fisikoa edo juridikoa, ustiategiaren ondasun eta eskubideak enpresa-irizpideetan oinarrituta antolatzen dituena, eta ustiategia kudeatzeak eragindako arriskuak eta erantzukizunak bere gain hartzen dituena. Ustiategiaren kudeaketa eta arrisku ekonomikoa pertsona batek baino gehiagok partekatzen badute, horietako bakoitza ustiategiaren titularkidetzat joko da, ordezkariak zeinek duen alde batera utzita.
Titulartasun partekatua: Nekazal ustiategian nekazal jarduera pertsonalki eta zuzenean senar-emazteek edo izatezko bikoteko bi kideek burutzen dutenean, ustiategi horren gaineko titulartasuna partekatua izango da, figura juridiko hori arautzen duten legeek eta arauak xedatutakoaren arabera, eta lege eta arau horiek ezarriko dituzten ondorioekin.



9 **Nekazari profesionala.**

Pertsona fisikoa baldin bada:

- Nekazaritzako ustiategien erregistroan inskribaturiko ustiategi bateko titularra izan.
- Urteko errentaren % 50, gutxienez, nekazaritza-jardueretatik edo nekazaritza-jarduera osagarrietatik lortzea; betiere, bere ustiategian egindako nekazaritza-jardueratik zuzenean lortutako errenta ez bada guztizko errentaren % 25 baino txikiagoa.
- Nekazaritza-jardueretan edo nekazaritza-jarduera osagarrietan lanean emandako denbora, nekazal lan unitateen arabera, lanean guztira emandako denboraren erdia baino gehiago bada.
- Nekazaritza-jardueraren arabera dagokion Gizarte Segurantzako Erregimenean izena emanda egotea.

Ustiategiko titularra pertsona juridikoa baldin bada:

- Bazkideen % 50a, gutxienez, bakoitza bere aldetik nekazari profesional kontsideratzen bada.
- Kapital sozialaren edo banaketa kuotaren %50a, gutxienez, nekazari profesionalak diren bazkideena izatea.

Lehenbizikoz instalatu eta landa gapapeneko programako nekazari gazteen instalakuntzako laguntza eskatzen duten nekazariak nekazari profesionaltzat joko dira, nahiz eta ez iritsi horretarako eskatzen diren errenta-maila eta ehunekoetara. Kontsiderazio hau nekazari gazteen instalatzeko eskaera egin ondorenetik instalakuntzarako espedientea amaitu arte izango dute.

10 **Nagusiki nekazaria:**

Pertsona fisikoa baldin bada:

- Nekazaritzako ustiategien erregistroan inskribaturiko ustiategi bateko titularra izan.
- Urteko errentaren % 50, gutxienez, bere ustiategian egindako nekazaritza-jardueratik zuzenean lortzea.
- Ustiategiarekin zuzenean lotutako jardueretan lanean emandako denbora, nekazal lan unitateen arabera, lanean guztira emandako denboraren erdia baino gehiago bada.
- Nekazaritza-jardueraren arabera dagokion Gizarte Segurantzako Erregimenean izena emanda egotea.

Ustiategiko titularra pertsona juridikoa baldin bada:

- Bazkideen % 50a, gutxienez, bakoitza bere aldetik nagusiki nekazari kontsideratzen bada.
- Kapital sozialaren edo banaketa kuotaren %50a, gutxienez, nagusiki nekazari diren bazkideena izatea.

Lehenbizikoz instalatu eta landa gapapeneko programako nekazari gazteen instalakuntzako laguntza eskatzen duten nekazariak nagusiki nekazari joko dira, nahiz eta ez iritsi horretarako eskatzen diren errenta-maila eta ehunekoetara. Kontsiderazio hau nekazari gazteen instalatzeko eskaera egin ondorenetik instalakuntzarako espedientea amaitu arte izango dute.

- 11 **Lehentasunezko nekazaritzako ustiategia:** Gaur egun bideragarria den nekazaritza-ustiategia, edo bideragarritasuna lor edo finka dezakeena, arauz ezarri diren edo ezar daitezkeen baldintzak betez, betiere.



- a) Ustiategiko baldintzak:
- Ustiategitik lortzen den laneko unitate-errenta erreferentziazko errentarekiko %10 edo handiagoa eta %120 baino txikiagoa.
 - Lanpetutako NLU-ak > 0,5

- b) Titularraren baldintzak:

Pertsona fisikoak titular dituzten ustiategiak:

- Nekazari profesionala izan.
- Beharrezko lanbide-prestakuntza izan behar du, ondorengo erizpideen arabera:
 - Nekazaritza-adarrean ikasketa-tituluak eskuratu dituztenek, gutxienez bigarren mailako lanbide-prestakuntza mailan, edo erdi- edo goi-mailako prestakuntza-zikloa egin dutenek.
 - Oro har, aurreko ataleko baldintzak betetzen ez badituzte, nekazaritza jardueran 5 urtez baino gehiagoz dihardutela egiaztatzea (nekazal ustiategian alta emandako urteen agiriak, nekazal ustiategi bateko lan kontratu edo nominak, nekazal ustiategian bekadun bezala egon izana, Gizarte segurantzaren nekazal jardueran alta emandako agiriak, PFEZ-ko nekazal etekinaren errenta aitortpenak),.
- Nekazari gazteek, baldin aurreko paragrafoan ezarritakoa betetzen ez badute, nekazaritzan bi urteko lanbide-esperientzia dutela egiaztatu behar dute, edo, bestela, nekazaritzara sartzeko ikastaro trinkoa egin dutela, edo nekazaritzaren adarrean etengabeko prestakuntzako ikastaroak egin dituztela, gutxienez ehun eta berrogeita hamar (150) eskola-ordukoak.
- Titularraren adina: 18 urte beteta eta 65 urte bete gabe.
- Nekazaritza-jardueraren arabera dagokion Gizarte Segurantzako Erregimenean izena emanda egotea.
- Nekazaritza-jardueraren arabera zergetan alta emanda egon.
- Ustiategia kokatuta dagoen eskualdean edo eskualde mugakideetan bizi behar da (EAEk lurralde-antolamenduan egindako eskualdearen definizioaren arabera), salbu ezinbesteko kasuak edo premia nabarikoak.

**Titularkidetasun edo titulartasun partekatuko kasuetan, nahikoa izango da batek baldintzak betetzen baditu.*

Elkarte modura eratutako ustiategiak:

- Honako forma juridiko bat osatu beharko dute:
 - Erkidegoan ustiatzeko kooperatiba edo lan elkartuko kooperatiba izatea.
 - Sozietate kooperatiboa edo eraldaketako nekazaritza-sozietatea izatea.
 - Sozietate zibila, lan-sozietatea edo bestelako merkataritzako sozietatea izatea. Halako sozietateek berariazko helburu izango dute titular diren ustiategian nekazaritza-jarduera egitea.
- Bazkideen % 50ek, gutxienez, pertsona fisikoak titular dituzten ustiategiei eskaturiko baldintzak bete behar dituzte.
- Kapital sozialaren edo banaketa kuotaren %50a, gutxienez, pertsona fisikoak titular dituzten ustiategiei eskaturiko baldintzak bete behar dituzten bazkideena izatea.